

Elkarrizketa
politikoak

ELORRIO



"Igurria eta Aidazu auzoetako bizilagunak sufritzen dabilzanak ez du izenik"

Elorrio • Kultur zinegotzi izatetik Elorrioko alkate izatera igaro da Julene Lazkano. Gogor kritikatu du AHTko obrek herrian duten eragina. Bestalde, Elorrioren eguneko zentroa izatearen beharrezan nabarmendu du. • 2-3



Abadiñon elkarretaratzea egin dute lan heriotza salatzen

Abadiño • Astelehenean lan heriotza bat gertatu zen Abadiñoeko Rheinmetall enpresan. Eguaztenean elkarretaratzea egin zuten lan istripua salatzen. • 6



Biak Bat, nesken harrobi arrakastatsuen adibide

Futbola • Biak Bat kirol elkarteak 25 neska hasi zuen bere ibilbidea, 2019an. Lau urte geroago, 126 neska dituzte, zazpi taldetan banatuta. Aurrera begira, seniorretako talde berri bat sortzea dute helburu. • 26



Durango • Munduko hainbat komunitate gutxituko aktibistak Durangon izan dira asteon, euren hizkuntza biziberritzeko formakuntza hartzen. • 4

"Nasa komunitateko eskolaratze prozesuan aurrerapauso esanguratsuak eman dira"

AINHOA IRAOLA



"70eko hamarkadako road movie bat hartu eta gure estilora ekarri dugu"

Kultura • Jon Aramendi durangarrak eta Aitor Mendilibar zaldibartarrak Zilarrezko Antzara jaso dute Euskal Zine Bileran, 'Habana glass' lanagaitik. • 24



**Julene Lazkano
Zenitagoia**
Elorrioko alkatea
ELORRIO | 1985

“Lanean jarraituko dugu udalaren aldetik eguneko zentroaren inguruko eskaera oso irmoa delako”

Julene Lazkano alkateak Elorrioko Udalak dituen erronken inguruko balorazioa egin du legegintzaldi hasiera honetan

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorrioko alkate Julene Lazkanok Montorra Plana, haurreskolaren eraberritzea zein arlo sozialeko proiektuak azpimarratu ditu herrian martxan ipiniriko proiektuen artean. Osasun eta zaintza arloan, osasungintzaren errefortzua eta eguneko zentro baten beharrezkoa nabarmendu ditu.

Zelan alkate karguan?

Ondo gabiltza, lan askogaz. Inplikazio eta ardura asko suposatzen du. Oso kontziente naiz oraindino asko dudala ikasteko, baina oso lantalde ona daukat eta langileak beti daude laguntzeko prest. Horrek leundu egiten du bidea.

Zeintzuk dira legegintzaldi honetarako erronkak?

Denbora batetik hona esaten gabiltzan moduan, etxebizitza arazoa da erronkarik handienetarikoa. Ez da bide erraza izango, baina oraintsu Montorra Plana onartu dugu, behin betiko. Eremu horretan 140 etxebizitza daude proiektatuta. Horietatik 70 sozialak izango lirateke. Batez ere gazteei begira oso aukera polita ikusten dugu, badakigulako oso gatz dutela gurasoen etxetik irtetea. 70 etxebizitza sozial horietatik 30 tasatuak izango dira, eta besteak babes ofizialekoak. Aurreikusita ditugun gainerako proiektu garrantzitsuak Kurutziazgako biribilgunea egitea, haurreskola eraberritzea, San Pio kalea eraberritzea eta HAPOa berrikustea dira. Proiektu potolo hauei, arlo sozialean egiten gabiltzan lana

gehitu behar zaie. Ez dugu erronka makala. Bestalde, jendeak, askotan, hirigintza proiektuak baino ez ditu nabarmentzen. Horregaitik, gizarte arloko zenbait egitasmo ere nabarmendu gura nituzke. Esaterako, Herrizaintza, Herri Lagunkoia edo alfabetatze klaseak. Zaintza arloan martxan ipiniriko proiektuak oso azpimarragarriak dira.

Montorra Plana aipatu duzu. Zer suposatuko du Elorriorentzat?

Orain paperak prestatu ditugu, etorkizunean promotoraren batek hor sartu gura balu. Tramite aldetik egitasmoa erraztea zen gure borondate politikoa. Gune horren berrurbanizazioa eragingo luke Ganondo parketik harantz. Baina, bidea zabaldu dugun arren, tramite hauek luze joko dute.

Zein egoeratan dago osasungintza Elorrioren? Pediatría zerbitzuan kexak izan dira.

Aurreko legegintzaldi amaierako egoera berean gaude. Osasun Sailari idatzi bi helarazi genizkion, zerbitzu publikoen beherakada bizi dugula azaltzeko. Elorrioren moduko herri batek beste modu bateko pediatría zerbitzua izan behar lukeela uste dugu. Ateak jotzen jarraituko dugu, arazoa ez delako konpondu eta aldarrikapen hau behar-beharrezkoa delako.

Eguneko zentroaren eskaeragaz joan zineten Bizkaiko Foru Aldundira, baina ezezkoa jaso duzue.

Urte askoan Elorrioren eguneko

zentroa eskatzen gabiltza. Aurreko legegintzaldian birritan joan ziren diputatuarengana eskari honeguz. Irailean ere berriro joan gara. Elorrioren eguneko zentroa gura dugu, baldintzak betetzen ditugulako.

Montorra Planean 140 etxebizitza daude proiektatuta. Horietatik 70 etxebizitza sozialak izango dira, 30 tasatuak, eta besteak babes ofizialekoak

Aldundiari eguneko zentroari buruzko ikerketa eraman genion. Ezezko borobila jaso genuen

Bizkaian gure ezaugarriak dituzten herriek badute zerbitzu hau. Sopela eta Elorrio dira ezaugarri beretsuko herrien artean eguneko zentroa ez duten herri bakarrak. Aurreko diputatuagaz ikerketa bat egiteko konpromisoa hartu genuen. Kanpoko enpresa batek eginiko ikerketak argi eta garbi ondorioztatzen du

ditugun baldintzekin Elorrioren oso bideragarria izango litzatekeela. Ikerketa Aldundiari eraman genion eta, gainera, gure eraikinak euren eskura ipini genituen. Ezezko borobila jaso genuen, zerbitzu hori Durangon zentralizatzen dutela argudiatuta. Nahikoa plaza dagoela diote. Guk uste dugu ez dela horrela. Elorrioko jende nagusiak ez du Durangora joan gura, dependentzia maila handia dutelako eta bidaia hori ez delako erosoa. Uste dugu zerbitzua bertan egongo balitz askok emango luketela izena. Lanean jarraituko dugu, gure eskaera oso irmoa delako. Kanean ere badago mugimendu sozial bat gai honeguz oso kontzientziatuta.

AHTko obrek bete-betean eragin dute Elorrioren.

Herrian egunerokoan ez dugu ikusten, baina Iguria eta Aidazu auzoetako bizilagunak sufrizten dabilzanak ez du izenik.

Zer transmititu dizute Iguriako eta Aidazuko auzokideek? Zer bizitzen dabilta?

Oso momentu gogorra bizitzen dabilta obrak hasi direnetik. Etsipenez bizi dute egoera. Eragozpen handiak dituzte. Oso desatsegina da, alde guztietatik. Hartu-eman zuzena dugu auzokideekin. Udalak aholkularitza zerbitzu bat ipini du bizilagunen eskura, edozein kexa tramitatzeko. Eragozpenak infinituak dira egunerokoan auzotarrontzat. Aholkulariak bitartekari lana egiten du, kexak bideratuta. Jarraipena ere egiten du, eta apurtxo bat lagundu ere bai. Bestalde, handik pasatzeak bihotzeko mina ematen du; hainbeste milioi hor xahututa ikustea, gainerako esparruetan hainbeste premia ikusten dugunean.

Iguria auzoko bizilagunek badute beste aldarrikapen bat ere: oinezko bide irisgarri eta seguru bat. Joan zen legegintzaldiko osoko bilkura batean mozioa aurkeztu zuten, bide seguru bat eskatzeko. Zertan da gai hori?

Eskaera historiko bat da eta hartu-eman zuzena dugu auzokideekin. Bizkaiko Foru Aldundira jo dugu, eta joan zen hilean Azpiegitura diputatuagaz izan ginen gai honetaz berba egiteko. Pasabide bat eraikitzeko aukerarik badagoen aztertzen gabiltza. Pasagune horren kostua milioi bat eurotik gorakoa izango litzateke eta Elorrioko Udalak ez dauka ahalmen ekonomikorik horretarako. Gainera, kontuan izan behar da errepide hori Aldundiarena dela. Uste dugu obra hori Aldundiak egin beharko lukeela. Auzotarrek ere horrela ikusten dute. Alde horretatik, indarra egiten jarraitu beharko dugu.

Momentu honetan, zein egoera bizi dute auzokideek?

Oinezbide seguru bat edukitzeko, lehenengo eta behin bidea guru-

tzatu behar da. Mendate bat eta saihebidetza bat lotzen dituen puntua da, oso leku delikatuak. Dagokionari eskaera egiten jarraituko dugu, eskumen hori ez delako gurea. Hobekuntza lez, Urkizuaran kalean espaloia eta bide berria egin behar dira, San Anton ermitatik Maderas Gallastegiraino. Badakigu oinezbide hori ez dela irtenbidea, baina, behin bidea zeharkatuta, zati luze batean askoz ere modu segurua goan etorri ahal izango da.

Elorrioko Udalak Galdakaoko ospitalera eta Leioako Campusera doazen autobus lineak hobetzeko eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Izan duzue erantzunik?

Bizkaiko Foru Aldundiak segituan bidali zuen erantzuna, baina ez zen guk espero genuen besteko ona. Ikasturte berriagaz batera, berriro hartu-emanen ipini ginen garraio zuzendariagaz. Leioako Campusera doazen ikasleekin gertatu da bereziki, Campuserako lotura hori galdu egiten zutelako. Goiz jaiki, Durangora autobusean joan, eta Durangoko geltokira heltzeagaz batera musturren aurrean galtzen zuten unibertsitatetako autobusa. Arazoa konpontzen ahaleginduko zirela erantzun ziguten. Bestalde, Galdakaoko linea ondo dabil.

Komertzio txikia zarratzen ari da eta erreleboa aurkitzea geroago eta gertago da.

Herrian geroago eta komertzio gutxiago dago, eta horrek pena ematen du. Aurreko legegintzaldian konpromiso batzuk hartu ziren, diru laguntza batzuk sortuta komertzio berriei bultzada emateko. Oso ondo baloraturiko diru laguntzak dira gainera. Egon dira eskaerak, eta dena banatzen da.

Baduzue hartu-emanik EME merkatarien elkartegaz?

Merkatari elkartegaz hitzarmen zehatz bat dugu. Bonuak ere banatzen ditugu. Gai honetan indar handia egiten dugu, herriko komertzioa bultzatzeko helburuagaz.

Bonu kanpainek ondo funtzionatzen dute?

Oso harrera ona duten kanpainak izaten dira. Urteak daramatzagu bonu denden zerbitzua ematen Elorrioren. Modu diferenteetara egin izan dugu. Lehen, udal txean banatzen genituen bonuak, eta bakoitzak gura zuen komertzioan gastatzen zituen, baina ez zen justua komertzioekiko. Gero, sistema hori irauli egin genuen eta dendei bonu kopuru zehatz bat banatu genien bezeroen artean zabaltzeko.

Zelan dago haurreskolako proiektua?

Aurten hasi dituzte obrak, eta guztiz eraberrituko da, premia handia zuen eraikuntza delako.



Hasieran, 1,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusita zegoen. Baina obretako materiala asko garestitu denez, proiektua bera ere garestitu da, eta orain 2,1 milioi euroko aurrekontua dugu. Obrak martxo onean doaz eta datorren ikasturtea bertan hastea espero dugu.

Diru laguntza garrantzitsua eskuratu duzue haurreskola eraberritzeko.

Zorionez, haurreskolako proiektua lehenengo postuan geratu zen Europako funtsetara aurkezturiko estatuko proiektuen artean. Elorrioko Udalak lan bikaina egin zuen, bai mahai teknikoan baita Maria Herrero zinegotziak ere.

Hezkuntza komunitateagaz ere oso lan sakona egin dugu. Horrela, 1,3 milioi euroko diru laguntza lortu genuen.

Aurtengoa alkate legez bizi izan duzun lehenengo Berrio-Otxoa Eguna izan da. Tradizioa aldatzea erabaki duzue. Zein hausnarketa egin duzue gai honen inguruan?

Ikusten genuen badela garaia 2023an udala, instituzio legez, eta eliza bereizteko. Ez genuen uste alkateak eta korporazioak kalejiran aginte makilagaz joan behar zutenik mezara. Elizari errespetu handia diogu, eta uste dugu bertara benetan sinesten delako joan

behar dela. Aurrelanketa egin genuen parrokoagaz, eta baita Berrio-Otxoa kofradiako kide batez ere. Dena azaldu genien eta oso ondo hartu zuten gure iritzia. Oso iritzi koherentea genuela esan ziguten.

Herritar talde batek katu kaleen elikadura kudeatzen du. Udala konforme dago zerbitzu horregaz?

Bai, konforme dago. Boluntario talde bat izanda, azpimarratzeko moduko lana egiten dutela uste dugu. Zaintzeko moduko proiektua da. Beharrezkoa da, kale katuen kontrol bat beharrezkoa delako.



Zentzudun bizi,
blogean ikasi

Ekonomia eraldatzailea • Ekonomia feminista • Elikadura burujabetza • Etxea • Euskara
Gizarte eraldaketa • Gorputzaren burujabetza • Iraunkortasuna • Konmari metodoa
Kontsumo alternatibak • Zero zabor... **EUSKARAZ!**

“Gure komunitatean aplikatu ahal ditugun estrategiak ikasten ari gara”

Komunitate gutxituetako hainbat ordezkari Euskal Herriko esperientzia jasotzen dabilta



Luis Evelio Velasco eta Mari del Pilar Casamachin Durangon, eguaztanean.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Munduko komunitate gutxituetako hainbat ordezkari Euskal Herrian dira egunotan, Garabide elkartearen eskutik, euren hizkuntza eta kultura biziberritzeko formakuntza saioak jasotzeko. Eguaztanean Durangon izan ziren, hemengo esperientziak ezagutzen. Ordezkar horien artean, Kolonbia hegoaldean bizi diren Nasa komunitatekoak daude. Durangoko Udalak hitzarmen bat du komunitate horren garapenean laguntzeko. Luis Evelio Velasco Noscue eta Maria del Pilar Casamachin Jule Nasa komunitateko kideak dira.

Hainbat hamarkada daramatzazue zuen kultura eta hizkuntza biziberritzen. Zeintzuk aurrerapauso eman dituzue?

Luis Evelio: Gure komunitatearen mandatuz gabiltza lanean. Komunitate kontzientzia hartuta, hizkuntza biziberritzeko nahia dago. Horrela, aktibista talde bat hizkuntza biziberritzeko estrategiak sortzeko lanean gabiltza, arlorik arlo: eskolaratze proze-

suak, emakumeekin egiten den lanketa, Nasa hizkuntza egiten edo idazten erakusteko...

Euskal Herrian euskara batua dugun moduan, Nasa hizkuntza bateratua existitzen da?

L.E.: Gure hizkuntza estandarizatu barik dago oraindino. Arlo horretan hutsune handiak ditugu eta 'corpusa' lantzen gabiltza. Garabideren aholkularitza dugu lagun bide horretan.

Zeintzuk pauso eman dira Nasa nortasuna eta kulturua biziberritzeko?

L.E.: Eskolaratze prozesuetan aurrerapauso esanguratsuak eman dira. Aktibistok barik, hezkuntza komunitateko jendea bera izan da ekimena hartu duena. Nasa komunitateak hartu duen kontzientziaren erakusle da prozesu hori.

Orain arteko zelako esperientzia izan da Euskal Herrian?

Maria del Pilar: Gonbidapenagaitik esker oneko gaude. Euskal Herri gatozen lehenengo aldia da eta gure komunitatean aplikatu ditzakegun estrategiak ikasten

gabiltza. Hemen erabiltzen diren erremintak han aplikatu gura ditugu, beti ere testuingurura egokituta.

Ikastera ez ezik kontatzera ere etorri zarete. Zuen komunitatearen berri eman duzue hainbat gunetan.

L.E.: Jaso duguna jasotzeaz gainera, guk gure esperientzia kontatzea eta ekarpen hori egitea interesgarria da guretzat, eta asegarria. Errealitate biak alderatzeko aukera ematen du: zeintzuk dira berdintasunak eta zeintzuk diferentziak?

Zuena behetik gorako mugimendua dela azpimarratu duzue. Baina zer egoeratan dago goitik beherakoa? Gobernuaren aldetik, zer laguntza duzue?

L.E.: Alderdi bi desberdinu behar dira: gobernu eta Kolonbiako erakunde indigenak. Erakundeok geure eskubideak aldarrikatzen dizkiogu gobernuari, erakunde bien arteko kontsulta-mahaiaren bitartez. Konstituzioan jasota dagoena bete egin behar dela eskatzen diogu.

Indarkeria matxistaren kontrako eduki digitalak sortzeko lehiaketa, martxan

Andereak eta Dendak Bai elkarteek antolatu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Andereak eta Dendak Bai elkarteek indarkeria matxistaren kontrako lehiaketa antolatu dute 12tik 30 urtera bitarteko gazteen-tzat. Lehiaketan, indarkeria matxistaren kontrako mezuekin sorturiko eduki digitalak sarituko dituzte. Parte hartu gura dutenek honako hau egin beharko dute: @andereakdurango helbidea Instagramen jarraitu, eta story bat ipini #AurreEginIndarkeriaMatxistari traola erabilia eta @andereakdurango aipatuta.

Irabazleak 150 euroko kupoia jasoko du, Dendak Bai elkartearen parte diren saltokietan tru-

katzeko. Bigarren eta hirugarren sailkatuek 75 euroko kupoi bana jasoko dute, tokiko denda horietan baliatzeko. Lanak azaroaren 18a baino lehenago sareratu beharko dira. Epaimahai Durangoko hainbat pertsona esanguratsuagaz osatuta egongo da. Lanen kalitatea, mezuaren edukia, sormena eta originaltasuna baloratuko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Sariketa 12tik 30 urtera bitartekoentzat den arren, antolatzaileek 30 urtetik gorakoak ere deitu dituzte edukiak sortzera eta indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa adieraztera.

Psikobonuen %61 saldu dituzte orain arte, 1.355 guztira

Aurtengo kanpaina azaroaren 30ean amaituko da



Psikobonoak 'bonoa.durango.eus' atarian eskuratu daitezke.

DURANGO • E.H.

Ekainean, Durangoko Udalak 2.222 psikobono ipini zituen salgai, 14tik 35 urtera bitarteko durangarrei psikologoaren joaten laguntzeko. Aurtengo kanpainak honako datu hauek utzi ditu: orain arte zirkulazioan ipiniriko

bonuen %61 saldu dira, 1.355 bonu guztira. Udalak "oso balantze positiboa" egin du eta datorren urtean programa berrituko duela iragarri du. Behar duenak oraindino ere aukera du psikobonoak eskuratzeko. Epea azaroaren 30ean zarratuko da.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko urriaren 27a
21. urtea - 954. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Plateruena Kultur Aterpearen kanpoaldea.

Plateruena entretenitzaile digitalen topaleku izango da azaroaren 4an

Durungaldea Entertainment Xperience egitasmoak, influentzerrak, musikariak eta gazteak batuko ditu

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kultur Aterpeak Durango Entertainment Xperience (DEX) egitasmoa hartuko du. 16tik 29 urtera bitarteko gazteei zuzenduriko jardunaldi monografikoa izango da, berbaldiak, kontzertuak eta bideo-jokoak ardatz izango dituen. Antolatzaileek "gazteentzako politika integralak gauzatzea" gura dute, "gazteen laneratzea errazteko eta bultzatzeko". Alberto Barreda eta Gabriel Mozo

influencer-ak izango dira bertan. Bestalde, egunerokotasunean pertsonaia ospetsua izateak dakarren lanaz arituko dira Paula Fernandez, Mikel Garcia, Diego Ayus eta Iñaki Tejedor. Etorkizuneko enplegu eta lanpostuei buruz jardun, eta gomendioak emango dizkiete gazteei. Musikarien artean, Janda eta Anize, XSakara eta DMT daude. Egitasmoan parte hartzeko, dexdurangaldea.com atarian eman behar da izena.

Otamotzenako gizarte etxea zapatuan inauguratuko dute

Aurkezpen ekitaldia, antzerkia, txokolatada eta kontzertua egongo dira. 12:00etan zabalduko dituzte

DURANGO • E.H.

"Urte askotako borroka" izan dela diote Herria Auzo Elkartekoek, "pazientzia handia" eskatu diena. "Baina azkenean bai, lortu dugu", esan dute. Aramotz, Otamotzena, San Roke eta Errotarixuena aldeko bizilagunek auzo etxe berria izango dute erabilgarri, zapatu honetatik aurrera. Eta hori ospatzeko, egitarau txiki bat antolatu dute. Eguerdian,

12:00etan puntuan, irekiera ekitaldia egingo dute aurkezpen batez eta ate irekien jardunaldi batez. 13:00etan, trikitilariak giroturiko luntxa izango dute, eta 17:00etan, umeentzako antzerki saioa Kiro Koro taldearen eskutik. Iluntze aldera txokolatada egingo dute, 18:00etan, eta The Barrigans taldearen kontzertuagaz amaituko dute eguna, 19:00etan.



Auzo elkarteko tabernak honako itxura hau hartu du obrak amaituta.

'Torreburutik Euskal Herrira kantuz' ekimena, Xabier Amuriza omentzeko

ZORNOTZA • A.M.

'Euskal herriko doinuak 2023 Etxano - Xabier Amuriza, Torreburutik Euskal Herrira kantuz' programa aurkeztu dute asteon. Etxanon urtero antolatzen den Kultur aste-buruaren barruan antolatu dute ekimena, eta azaroaren 10etik 12ra bitartean egingo dute. "Xabier Amurizak lorpen ugari du eta gurea den artista da, Etxano udalerrri independentea zen ga-

raian Torreburubarri baserrian jaio zelako; euskarari eta gure herriaren aberastasun kulturari ekarpen handia egin die. Eskainiriko guztiagaitik, aitorten xume bat egin beharrean gaude", azaldu du Olaia Hormaetxea Etxanoko Andra Mari auzo elkarteko ordezkariak. Barikuan, azaroak 10, kalejira eta haurren kantaldia izango dira, besteak beste; egun bat geroago, 'Xabier Amuriza

ibilaldi antzetzua' egingo dute Bizkargin, Autzaganen eta Etxanon zehar, eta, horren ondoren, bazkaria. Gauean, ikuskizuna egingo dute Zelaietako frontoian. Gonbidatu bereziak egongo dira; besteak beste, Jon Maia, Anje Duhalde, Mikel Urdangarin eta Josu Zabala. Egitaraua borobiltzeko, Etxanoko auzokideek eta Zornotzako koruak kontzertua emango dute.



Egunean aurkeztu zuten programa.

Zornotzan laguntzak dendetako errotulu eta web orriak euskaraz ipintzeagaitik

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak diru laguntza bi aktibatu ditu herrian euskararen erabilera sustatzeko helburuagaz. Bata komertzioei loturikoa da. Udalak diruz lagunduko die dendetako errotulu, web orri eta irudi korporatiboak euskaraz egiten dituzten establezimenduei. Gehienez 2.500 euro ipiniko ditu egitasmorako. Bigarren diru laguntza euskararen erabilera sustatzeko jardueri begirakoa da. Irabazi asmorik bako elkarrekin zabalik dute horiek eskatu eta jasorikoagaz jarduerak antolatzeko aukera. 5.000 euro erabiliko dituzte egitasmo honetarako.

Eskaerak egin gura dituzten elkarte eta establezimenduek Herritarren Arreta Zerbitzuan egin dezakete tramitazioa. Laguntzak eskatzeko epea azaroaren 20an amaituko da.

Zornotzako Familia Eskoletan izena emateko epea, zabalik

Modu presentzian zein Interneten bitartez emango dituzte ikastaroetako eskolak, adin tartearen arabera

ZORNOTZA • E.H.

Familiei eta gurasoei begirako hainbat ikastaro emango dute Zornotzan, mendekotasunaren eta beste era bateko arrisku jokatibeen prebentzioa sustatzeko. 0-6, 7-12 eta 13-16 adin tarteko seme-alabak dituzten gurasoei begirako saioak dira. Zortzi saio izango dira, familian izaten diren eginkizunei buruz hausnartzea eta gurasotasun positiboa lantzea ahalbidetuko dutenak. Modu presentzian zein sarean emango dituzte. Adin tartearen arabera antolatuko dituzte.

Otik 6 urte arteko seme-alabak

Hezkuntza emozionalari buruz arituko dira, jatorduak, anai-arrebekiko hartu-emanak, ikasketak zein pantailen erabilera kudeatzeko tresnak eskainita. Saioak martitzenetan egingo dituzte, 17:00etatik 18:30era. Lehenengo saioa azaroaren 14an izango da.

7tik 12 urte arteko seme-alabak

Nerabezaroaren gaineko gaiak landuko dituzte: kontzientzia emozionala, autoestimua, mugak eta zigorrak, enpatia, entzute aktiboa. Baita drogen kontsumoari zein teknologien erabilerrari buruzko gaiak ere. Saioak eguaztetenan emango dituzte, 18:00-19:30 orduetartean. Lehenengo saioa azaroaren 15ean izango da.

13tik 16 urte arteko seme-alabak

Nerabezaroak dakartzen aldaketan aurrean, adin tarte horri begirako saioak landuko dituzte. Aldaketa fisiko, biologiko eta sozialak, eta gatazken kudeaketa izango dute berbaiz. Saioak eguaztetenan izango dira, 18:00etatik 19:30era. Azaroaren 16an emango dute lehenengo saioa. Talde bakoitzak aurrera egiteko, gutxienez 5 lagunek eman beharko dutela izena argitu dute. (prebentzioa@amorebieta.eus | 623 169 286).

Dozenaka lagun batu dira Traña-Matienan, lan heriotza salatzen elkarretaratzean

Lan heriotza astelehen goizean gertatu zen, Traña-Matienako Rheinmetall enpresan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehen goizean lan istripua izan zen Traña-Matienako Rheinmetall enpresan. Ezbehar larri horretan, Urtzi Abanzabalegi errugbi jokalaria ohia hil zen, beharrez zebilela. Abanzabalegi 46 urte zituen eta Electricidad Anboto enpresarako lan egiten zuen. Rheinmetall enpresak azpikontratatu egiten du Electricidad Anboto.

Eguaztenean, Traña-Matienako Trañabarren etorbidean elkarre-

taratzea egin zuten lan heriotza salatzen bertan. Sortuk, LAB sindikatuak eta Ernai gazte antolakundeak deitu zuten elkarretaratzean. Eta Abadiño Udalak ere bat egin zuen protestagaz.

Elkarretaratzean salatu zuten Euskal Herrian 46 lagun hil direla lanean dagoeneko. "Heriotza hauen guztien atzean neurri preventiboen eza dago. Eta Osalari, lan ikuskaritzari eta patronalari

exijitzen diegu behar duen besteko garrantzia eman diezaiotela behingoz prebentzioari, sarraski hau gelditu egin behar delako", adierazi zuten. Horrez gainera, hildakoaren senide, lagun eta familiartekoei elkartzatzea eskatu zuten. Bestalde, Abadiño Udaleko Bozeramaile Batzordeak heriotza zerk eragin zuen argitzeko eskatu zuten Eusko Jaurlaritzako Seguritas Sailari eta Osalari, eta informazio hori hildakoaren senideei helarazteko.



Eguazteneko elkarretaratze argazkia.



Martzel Altube eta Malen Goñi.

"Abadiñoako Gaztetxeari merezi duen omenaldia ematea da gure asmoa"

25 urte pasatu dira Abadiñoako Gaztetxea zabaldu zutenetik. Asteburuan urteurren jaia ospatuko dute bertan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Gaztetxearen 25. urteurrena. Zelan zaudete?

Malen Goñi: Abadiño astintzeko gogoz gaude. Bidea apur bat negarri egiten dabil, tartean gauza asko dugulako, baina oso gogotsu gaude, zailtasunak zailtasun.

Bide bat eginda daukazue dagoeneko eta ospatu egin beharko duzue.

M. G.: Benetan ere! Mende laurdena betetzea ez da txantxa, eta, beraz, Gaztetxeari merezi duen omenaldia ematea da gure asmoa.

Zelan ospatuko duzue 25. urteurrena?

Martzel Altube: Aisialdi eskaintza zabaldu egongo da. Alde batetik, gauza berriak izango ditugu: urteurren jaiari hasiera emango dion bertso

saioa eta azken eguneko artisau azoka, esaterako. Bestetik, tradizioari ere eutsiko diogu eta zapatuan urteroko bizikleta martxa eta bazkaria izango ditugu.

M. G.: Gaztetxean tradizioak pisu handia du eta eskerrak eman gura genizkieke Gaztetxearen sorreran egon zirenei eta harrezkero Abadiño 'zertzen' jarraitu dutenei. Euri eskerrak gaude hemen, euren esfortzuagaitik.

Luto poteoa egin zenuten, eskelak ipini zenituzten herritik zehar... Zergaitik erreferentzia hau heriotzari?

M. G.: Ideia hori hartu dugu oinarri urteurrenerako. Abadiño hilda dagoen herria dela erakutsi gura dugu, eta Gaztetxekoa lana dela herria berpiztea. Horregaitik, he-

rria bera hilerri bihurtu dugu, eta horregaitik eskelak, oroitarriak... Umoreagaz heldu gura izan diogu Abadiñoako egungo egoerari. Baina horrek beste errealitate bat du atzean.

M. A.: Aurreko eredu politikoaren porrotak gaztearen despolitizazio orokor bat ekarri duela ikusten dugu. Eta gazteek ez sinistea gaur egungo errealitatea aldatuko dela. Horrez gainera, Abadiño ez dago aukerarik kontsumismoan oinarritzen ez den aisialdirik aurrera eramateko. Horregaitik ikusten dugu beste ideia politiko batzuei egin behar zaiela bidea. Eta kultur eredu berri bat sustatu behar dugula, eta, horretarako, Gaztetxea beharrezko espazioa da.

Gaur egun zelako osasuna du Gaztetxeak?

M. G.: Ideia politiko berri hauei edo kultur eredu berriei heltzeko gogotsu dagoen Gazte Asanblada bat gaude Abadiñoako Gaztetxean. Baina, dena dela, gehiagoren artean errazago egiten dira gauzak. Beraz, hemendik dei egiten diegu Abadiñoako gazteei Gazte Asanbladan parte hartu dezaten.

'Belaunaldi artean' programa partaide bila dabil Elorri

'Belaunaldi artean' egitasmoak nerabeen eta pertsona nagusien arteko hartu-emanak sustatzea du helburu

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Nerabeen eta pertsona nagusien arteko hartu-emanak sustatzea duen 'Belaunaldi artean' programak bederatzigarren ikasturtea du, eta bertara partaide berriak erakartzea dute helburu. Antolatzaileen ber-

betan, batzuek besteengandik ikasteko, gozatzeko, hunkitzeko, aurreiritziak gainditzeko eta barre egiteko aukera paregabea eskaintzen du.

Bertan parte hartu gura dutenek 658 721 292 telefonora deitu dezakete.



'Belaunaldi artean' programako argazkia.

2024ko aurrekontu parte hartzaileek badute irabazlea

Elorriko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu datorren urteko aurrekontuetatik proiektu honetarako

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorri, 2024ko aurrekontu parte hartzaileek badute proiektu irabazlea. Natura-, jolas- eta kirol- elementuak Ganondo parkean edo San Josen instalatzea izan da proiekturik bozkatuena. Guztira, 579 lagunek parte hartu dute eta horietatik 554 parte-hartze onartu dira. 104 elorriarrek egin dute proiektu irabazlearen alde. Bigarren

proiekturik bozkatuena haurrentzako ur-parkea izan da, Ganondon (82 boto), eta hirugarrena Andueta kaleko espaloiak eta aparkalekuak hobetzea (76 boto).

Instalatu beharreko elementuak eta horien kokapena aukeratzeko, prozesuaren lehenengo fasean eginiko ekarpenak kontuan hartuko direla azaldu dute udaletik.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06



**AINARA
URRETA
JAINAGA**

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13



Kickboxing torneoa udalaren, IndarXport klubaren eta Laureano Team klubaren artean antolatu dute.

Kickboxing torneoa, ardo feria eta gehiago Mallabiko Urriko Jaietan

Kickboxingeko zortzi borrokaldi izango dira, tartean eskualdeko hainbat ordezkari; ardo ferian, gastronomiari loturiko hainbat ekintza egongo da, dastatzeaz gainera

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Urriko Jaietako ekimenik gehienak asteburu honetan kontzentratuko dira. Zapatu gauean Gozategi, Merina Gris, Hofe eta TOC taldeek emango dituzten kontzertuez gainera, beste hainbat ekimen egongo da. Esaterako, kickboxing torneoa eta ardo feria.

Kickboxing torneoa gaur izango da, barikua, 18:30ean, herriko frontoian. Zortzi borrokaldi izango dira: boxeoko lau eta kickboxingeko beste lau. Gerriko bi egongo dira jokoan, biak nesketan. Kick-

boxingean, IndarXport taldeko Nerea Hidalgo durangarrak Uxue Sanchez dulantziarra izango du aurkari, 55 kiloz azpiko mailan. Boxeoan, Raquel Martinez gasteiztarrak eta Naia Garmendia bilbotarrak neurtuko dituzte indarrak, 52 kiloz azpiko mailan. Gizonetan, eskualdeko beste ordezkari bat ari-tuko da: Michel Diatta durangarra; Martxel Sagarzazu erreteriarren aurka borrokatuko da. Gala ikusteko sarrera 15 euro da.

Bestalde, ardo feriak laugarren aldia egingo du zapatuan, 12:00etatik 15:00etara, probale-

kuan. Ardoa dastatzeko aukera ez ezik, gastronomiari loturiko beste hainbat ekintza ere egingo dute: urdaiazpikoa mozteko ikastaroa, gazteentzako gastrotailerrak, bakailao *show cooking* bat eta paella dastatzea. Sarrera 7 euro da.

Domekan, 11:30ean, autoen eslaloma egingo dute Goitondo Behekoan. Ondoren, 16:30ean, 'Katapuntxispun' umeentzako ikuskizuna hasiko da frontoian. Urriko Jaien barruan Gau Beltza ere egingo dute, astelehenetik eguaztenerako programazio batetaz.

Mallabiko eskolako urteurren bazkarian bete egin zen frontoia

Eskolatik esker ona adierazi diete mende erdia ospatzeko antolakuntzan buru-belarri lanean aritu diren denei

MALLABIA • J.D.

Joan zen zapatuan, Mallabiko eskolako komunitateak Learreta-Markinako eskola sortu zeneko 50. urteurrena ospatu zuen, egun osoko jaia eginda. Bestelako ekintzak ere egin dituzte. Jende asko aritu da prestakuntza lanetan dena behar den modura irteteko, eta eskolatik esker ona adierazi gura diete denei, honako mezua helaraziz: "Bihotzez eskerrak, ospakizun hau posible egin duzuen denoi. Berbarik barik geratu gara

egindako lanagaz. Zoragarriak zarete". Joan zen zapatuan bazkaria antolatu zuten frontoian eta jendez bete zen. Kalejira eta musika kontzertua ere izan zen jai giroa herrigune osora zabalduz. Baina ekimen guztiak ez ziren egun horretara mugatu: urteurrenaren harira abesti bat sortu eta bideo-klip bat grabatu dute komunitateko jendearekin; eskolan data berezia gogoratzen duen horma-irudia margotu dute eta eskolako logotipo berria sortu dute.



Frontoian egindako bazkariko irudia.

Oihane Amantegiren eta Julen Apellaren liburu aurkezpena eta musika zapatuan, Mañarian

Angurreta arte espazioan izango da ekitaldia, 12:00etan

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Zapatu honetan ekimen berri bat dago Mañariko Angurreta arte espazioan. Oihane Amantegiren eta Julen Apellaren liburua aurkeztuko dute, 12:00etan. Joseba Sarrionandia izango da aurkezlea. Horrez gainera, Apellak eta

Amantegik hainbat abesti interpretatuko dute: John Coltranearen *Softly*, J.S.Bachen *Minuet and Baderie*... Alfredo Sanz flautistaren eta Irati Ortubia biolontxelistaren laguntza izango dute. Euria eginez gero, ekimena bertan behera geratuko da.



Mañariko Angurreta Harrobia arte espazioa.

Izurtzako clown ikastaroko klase bat dohainik probatzeko aukera martitzenean

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Korrala sormen gunean 'Disfrutando del ridículo' clown ikastaroa hasi dute asteon. Bost ikaslegaz hasi dute, eta abendura bitartean martitzen arratsaldetan emango dute ikastaroa. Ikasleak Durangokoak, Atxondokoak, Markinakoak eta Abadiñoakoak dira. Korrala guneako kideek adierazi dute oraindino badagoela lekua ikasle gehiagorentzat. Gura duena dohainik joan daiteke klase batera. Datorren martitzenean, 18:30etik 20:30era emango dute klasea, eta interesa duena probatzera joan daiteke. Korrala gunea sasoi bateko Azkonizaga jatetxearen ondoko lokal batean dago.

Otxandioko Gaztetxokoak atek zabalik nerabeentzat

Haurreskolako gimnasioan elkartzeko aukera dute



Gaztetxokorako sarrera, Mainondoko haurreskolako gimnasioan.

OTXANDIO • J.D.

Orain artean Gazte Ekintza legez ezaguna izan den egitasmoa Gaztetxoko izango da aurrerantzean. Urri hasieran ekin zioten Gaztetxoko dinamikari. "Herriko nerabeak gozo egoteko leku bat sortzea" da udalaren asmoa. "Nerabeen beharrian eta interesak erdigunean ipini, elkarri entzun,

eta gozatzea da helburu nagusia", azaldu dute. Gaztetxokoan parte hartzen duten nerabeek Mainondoko haurreskolako gimnasioan elkartzeko aukera izango dute bariku arratsaldeetan. Udaletik herriko nerabeei deia egin diete Gaztetxokoan parte hartzeko, Mainondora joateko eta gunea ezagutzeko.

Mallabirako bidegorriagaz eta Areitio gainean egiten dabiltzan biribilguneagaz, aurrera doaz Eibar Kirol Hiria amaitzeko lanak

Kirol instalaziorako sarbideetan egiten dabiltzan lanek trafikoari eragin diezaioketela jakinarazi dute

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Apurka aurrera doaz Areitio gainean Eibar futbol klubaren Kirol Hiria egiteko lanak. Irailean hasi ziren Mallabiko Udalaren eta Eibar Kirol Elkartearen akordioan jasoriko bidegorria egiten, Mallabiko herrigunea eta Areitio auzoa lotuko dituena. Eta aste honetan bertan hasi dira Areitio gaineko N-634 errepidean biribilgunea egiten. Horri eskerrak, biribilgunea errepide nagusitik sartu ahal izango da.

Mallabiko Udalak obra-lizentzia eman du Kirol Hiria urbanizatzeko eta 1., 2. eta 3. zelaietako tribunak eraikitzeko. Espazio horretan, halaber, aldagelak, gimnasioa, bulegoak eta eskaturiko beste instalazio batzuk ere egingo dituzte. "Beraz, datozen asteetan lanean arituko dira Eibar Kirol Elkartek Mallabian dituen kirol instalazio berriak etorkizunean martxan egon ahal izateko geratzen diren obra guztietan", adierazi dute.

Obrek trafikoan duten eragina

Kirol instalaziorako sarbideetan egiten dabiltzan lanek trafikoari eragin diezaioketela, seinale bertikalak, horizontalak eta balizak egingo baitituzte N-634 errepideko hainbat zatitan. Lan horiek errepideetako "ohiko zirkulazioari

Erreiak "unean-unean edo hiru minututik beherako mikrokorreak eginda" itxiko dituzte

eragin barik" egiten ahaleginduko direla azaldu dute. Hala ere, zirkulazioari eragin behar izanez gero, erreiak "unean-unean edo hiru minututik beherako mikrokorreak eginda" itxiko dituzte. Honako lan ordutegian itxiko dituzte erreiak: astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:00etara. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, oster, edozein ordutegiren barruan.



Eibar futbol klubeko presidente Amaia Gorostiza eta Mallabiko alkate Igor Agirre, Kirol Hiriko obretan.



Okm:

batzen gaituen
distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**anboto
kide**

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



Ez naiz inoiz Dublinen egon antzerkirako bi sarrera. Azaroaren 9an, San Agustinen.



Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurreako bi sarrera bikoitz. Azaroaren 11n, Olakueta frontoian (Berriz).

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun: Laura Oñate Urien

'Loti ederra', Zornotzan: Itsaso Barroeta Usubiaga

Yarin, San Agustinen: Marisa Barrena Larruzea

BBK Karpin fauna: Joseba Berriotxoa eta Leire Nazabal Larburu

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Añube. JON ANDER ALBERDI

Programazio berria Zaldibarren, euskarazko sormena sustatzeko

Besteak beste, Añube taldearen doako kontzertua antolatu dute urriaren 28rako

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udaleko Euskara Sailak kultur programa berria prestatu du euskarazko sormena bultzatzeko eta horri espazio bat eskaintzeko. Aurreko urteetako asmoari jarraituta, hiru jarduera antolatu ditu udazkenerako. Zapatuan, urriak 28, Añube talde arrasatearrak kontzertua emango du Olazar futbol zelai zaharrean. Emanaldia doakoa izango da eta 20:00etan hasiko da.

Horrez gainera, azaroaren 19an Ander Guillenearen argazki proiektzioa egongo da. Guillenea

Añube talde arrasatearrak kontzertua joko du zapatuan, 20:00etan, Olazar futbol zelai zaharrean

Gure historiako pasarteak 1990-2018 bildumaren egilea da, eta bertan Euskal Herriko gatazkan oinarritzen diren argazkiak batu ditu. Egileak azalpenak ematen dituen bitartean ikusi ahal izango dira argazkiak. Bestalde, abenduaren 17an, Jon Plazaolak 'Tutum Platz' bakarriketa egongo du; Plazaola

bere hasieretara bueltatuko da lan honetan. Olazarko pilotalekuan izango da.

Bertso eskola, martxan

Bestalde, 2023-2024 ikasturteko bertso eskola martxan da. Ikasturte honetan, martitzenetan izango dira saioak, 16:30etik 17:30era bitartean. Saio hauek Zaldibarko eskolan egingo dituzte eta gazte txoei zuzendurikoak dira. Izena emateko, eguen@zaldibar.eus helbide elektronikora idatzi behar da; 946 827 016 telefonora deituta ere egin daiteke.

Azaroaren 17an amaituko da epea lanak argazki lehiaketara bidaltzeko

Berrizko XXV. Argazki Lehiaketa martxan da; azaroaren 24an esango dute nortzuk diren irabazleak



Argazki lehiaketaren XXV. edizioa izango da.

BERRIZ • A. M.

Berrizko Udalak martxan jarri du XXV. argazki lehiaketa. Parte hartu gura dutenek azaroaren 17ra arteko epea dute euren proposamenak bidaltzeko. "Aurreko edizio guztietan legez, aurkezturiko lanek originalak eta argitaratu bakoak izan beharko dute, eta herriagaz zerkusia duten alderdiak izan behar dituzte oinarri; besteak beste, udalerriko bizitza eta ohiturak, jaiak, kirola, arkitektura, kultura...", azaldu dute antolatzaileek ohar baten bitartez. Epaimahaiaren erabakia azaroaren 23an jakinaraziko dute, eta sari banaketa azaroaren 24an izango da, 19:30ean, Kultur Etxean. Lehenengo saria 300 eurokoa da, eta bigarrena 250 eurokoa. Beste sari bat ere banatuko dute: genero ikuspegia lantzen duen saria, 200 eurokoa. Hiru sarituen artean berriztarrik ez balego, 150 euroko sari berezi bat emango liokete herriko argazkirik onenari. Parte hartzen dutenen lanekin erakusketa bat egingo dute Berrizko Kultur Etxean, azaroaren 24tik abenduaren 22ra arte.



Lazaro Milikua, Garaiko baserri izenekin idatziriko jarleku artean.

Garaiko baserri izenekin idatziriko jarlekuak, sasoi bateko bileren sinbolo

Garaiko udaletxean herriko baserrien izenekin idatziriko jarlekuak daude, sasoi bateko batzar eta botere ahalmenen sinbolo legez. Lazaro Milikuak eman dizkigu xehetasunak

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko udaletxeak hainbat berezitasun eta istorio txiki aterpetzen du bere barruan. Istorio txiki eta isila da honako hau. Ezezaguna, seguruenik, garaitarrak ez direnentzat, baina berezia eta kutuna bertako herritarrentzat.

Bai, beste edozein udaletxean legez, Garaikoan ere badago osoko bilkurak egiteko aretoa. Eta bai, ohikoa den moduan, udal ordezkariak bertan batzen dira erabakiak hartzeko. Baina berezitasuna ondoko gelan dago, osoko bilkurak egiteko aretoaren aldameneko gelan. Han barruan, herriko baserri guztien izenekin markaturiko jarlekuak daude, sei ilaratan antolatuta. "Jesarleku hauetan, 1700. urte bueltako fogerazio dokumentuetan, sasoi hartako etxebizitzaren erroldan, jasota zeuden baserrien izenak ageri dira. Berrogei baserri dira, gaur egun ere zutik dirautenak. Bat edo bi baino ez

dira desagertu. Sololuze eta Mallukitza, adibidez, jesarlekuetan islatuta daude, baina jada ez dira existitzen", azaldu du Lazaro Milikuak.

Jarlekuak sasoi bateko boterearen eta erabakigunearen ispilu dira. Etxe bakoitzeko ordezkariak elkarregaz batzen ziren, euren interesak defendatu eta herriko gorabeherei buruzko erabakiak hartzeko. "Baina gaur egun balio sinbolikoa baino ez daukate. Sasoi hartako batzarretan, elizaurrean egiten ziren bileretan, nortzuek parte hartzen zuten irudikatzeko balio dute bakarrik. Hain zuzen ere, baserrietako ugazabek baino ez zuten eskubidea botoa emateko batzarretan", argitu du bizilagun garaitarrak. Milikuak berak ere gogoan du herriko gorabeherei buruzko batzarretariko batzuk jarleku horietan jesarrita egin zirela orain dela hainbat hamarkada: "Akordatzan naiz Oizko

urak etxeetara eramateko erabakiak edo argindarra ekartzeari buruzkoak gela honetan hartu zirela. Jende ugari etorri zen baserrietatik", esan du. Gaur egun, bestelako erabakiak hartzeko erabiltzen dituzte jarlekuak. Herriko jaiak antolatzeko, adibidez. "Baina baserrietako ugazabek ez dira bakoitza bere jarlekuan jesartzen", argitu du irribarrea ahoan.

Jarlekuak herriko etxeen izenekin atontzeko ideia udaletxea berriztu zen sasoiakoa da, Milikuaren berbetan, 1972 ingurukoa. "Jose Luis Lizundia zen idazkaria, eta Javier Ortega arkitektoa. Esango nuke euren erabakiz ipini zirela jarlekuak. Erabaki polita izan zen, garaitarrok historiako zerbait dugulako hemen, bertan geratuko den zerbait dugulako udaletxean", amaitu du Milikuak. Eta bai, hori ere bai. Istorio isil eta txiki bat betikotu dute jesarlekuek.

Udalak eta JAEDek lankidetzan hitzarmena sinatu dute lurretan

Udalak 9.225 euro ipiniko ditu beharizanik gehien duten herriko pertsona eta familiei laguntasuna emateko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udalak eta JAEDek lankidetzan hitzarmena sinatu dute "herrian premiarik gehien duten pertsona eta familiei laguntzeko". Horretarako, udalak 9.225 euroko diru poltsa lotu du. Bestalde, Juan

Orobiogoitia institutuko DBHko 3. mailako ikasleekin proiektu komunitarioa hasi dute. Ikasleek JAEDeko instalazioak bisitatuko dituzte, eta elikagaiak banatzen eta paketeak prestatzen lagunduko dute, besteak beste.



JAEDeko ordezkariak Iñaki Totorikaguena alkateagaz eta Zorione Fundazuri zinegotziagaz.

Atxondoko Udalak irakurketa klubak antolatu ditu haur eta familientzat

Azaroaren 3ra arte aukera dago izena emateko liburutegian

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak irakurketa klubak antolatu ditu haur eta familientzat. 'Kabi Kontuak' izeneko kluba 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat izango da eta Amaia Egidazuk gidatuko du. Eguenetan izango da: azaroaren 23an, abenduaren 14an, urtarrilaren 25ean, otsailaren 22an, martxoaren 21ean eta apirilaren 25ean.

'Letren hariak' izeneko kluba 4tik 7 urtera bitarteko haurrentzat izango da. Dinamika hau Mireia Delgadok zuzenduko du eta martitzenetan izango da: azaroaren 21ean, abenduaren 19an, urtarrilaren 23an, otsailaren

20an, martxoaren 19an eta apirilaren 23an.

Azken irakurketa kluba 'Letren hari moreak' da eta 8tik 14 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago. Honetan ere Mireia Delgado izango da arduraduna, eta data hauek izango da: azaroaren 21ean, abenduaren 19an, urtarrilaren 23an, otsailaren 23an, martxoaren 19an eta apirilaren 23an.

Irakurketa klub hauetan parte hartu gura dutenek azaroaren 3ra arte aukera dute bertan izena emateko. Izen ematea liburutegian edo <https://labur.eus/atxondokoirakurketaklubak> helbidean egin daiteke.



errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskalgintzara bideratzen da

50€



Eskatu saskia!



Mankomunitateak 400.000 euro ipiniko ditu Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako

Idoia Otaduyk lanaldi osoz jardungo du. Ainara Otxotorenak, bestalde, lanaldi herenagaz

DURANGALDEA • E.H.

Mankomunitate osatu berriak bere lehenengo erabakiak hartu ditu asteon. Dekretu bidez halantxik erabakita, aurrekontuko soberakinetik 400.000 euro hartu eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako erabiliko dituzte. Idoia Otaduyk ohar bidez azaldu duenez, "lehenengo egunetik" hasi gura izan dute gizarte zerbitzuen arloa "indartzen". "Bereziki zaurgarriak diren taldeen beharrianak" zaintzean egin du azpimarra. Gainerakoan, Mankomunitateko egiturari



Martitzen arratsaldean osoko bilkura egin zuten Astolako Etxean.

loturiko erabakiak hartu dituzte. Eurretari bat presidentearen eta presidenteordearen soldatak zehaztea izan da. Idoia Otaduyk lanaldi osoz jardungo du, urtean 51.955 euroko soldata gordinagaz. Azaldu duenez, "Eusko Jaurlaritzako zuzendari baten pareko karguei dagokiena baino %33 gutxiago" jasoko du. Ainara Otxotorena presidenteordeak, bestalde, %30eko dedikazioagaz jardungo du, urtean 11.556 euroko soldata gordinagaz. Martitzeneko eztabaidan EAJko Oskar Kokak kritikatu egin zuen liberazio berri hau, eta soldata bietara bideratzen den diru kopurua "igo" egin dela esan zuen. EH Bilduko Aitor Lopezek erantzun zion "lehenengo presidentek jasotzen zuen diru kopuru beragaz liberazio bat eta heren" berdindu dutela.

Politikan

Markel Larruskain
Narbaiza
EH-Bildu



Herria egiteari trabak

Lotsagarria da elkartegintzari eta mugimendu sozialetan antolatzen den jendeari instituzio publikoetatik ematen zaien tratua.

Hemengo irakurle gehienek izango dituzue zuen esperientziak proiektu kolektiboetan. Aldizkari honen jatorria bera ere diru irabazi asmorik bako dedikazio militantean kokatzen da eta uste dut ukazina dela gure hizkuntzak mugimendu sozial eta elkarleen bidez egindako lan nekaezinari esker biziraun duela. Euskalgintzan baditugu adibideak, baina beste horrenbeste aipatu genitzake feminismoan, ekologismoan, kirolean, literaturan, musikan, sindikalgintzan, antzerkian edo auzogintzan. Denok ezagutzen ditugu Berbaro, Bilgune Feminista, Andreak, Euskal Herrian Euskaraz, Gerediaga, Durangoko Azoka, Alpiño, Ourdaiby, Karrika, Pentsionistak, Durangoko Txosnak, Herria, jai batzordeak, Geu be. Burura etorri zaizkidan lehenak aipatzearen.

Gai hau ekarri dut lerro hauetara, kezka bizi ditudalako legearen eta zibikotasunaren izenean hartzen diren neurriak. Mehatxuak, mespretxua, isunak, ez genituzke normalizatu behar. Itogarria eta batez ere nekagarria bihurtu da edozer antolatu edo aldarrikatzea.

Errespetatu dezagun esparru ezberdinetan egiten den lana eta baloratu ditzagun lan hau egiten duten pertsonak, ez bakarrik omenaldietan. Jar ditzagun baliabide publikoak elkarrekin eta eragileen mesedetan, bultzatu dezagun antolakuntza eta ahaldu ditzagun komunitateak. Gure herriak merezi du.

Durangaldea asteon

Zapatuan, orientazio proba egingo dute Urkiolan, Saibi-Eskuagatx eremuan

ABADIÑO | Cobidea Orientazio Taldeak antolatuta, orientazio proba egingo dute bihar, urriak 28, Urkiolako Parke Naturalean, Saibi-Eskuagatx eremuan. Antolatzaileek azaldu dutenez, federatuentzako proba bat eta herrikoia den beste bat egongo dira. Federatuen proba 7 ordukoa izango da, eta herrikoia 3 ordukoa.



Maria Narbaiza durangarrak 100 urte egin ditu

DURANGO | Maria Narbaiza durangarrak 100 urte egin ditu. Narbaiza Berrizko Urbitza baserrian jaio zen, 1923ko urriaren 22an. Durangora ezkondu zen eta Madalena auzoan bizitakoa da.

Astelehenean, Mireia Elkoroiribe alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea Eguzkilore eguneko zentrorra joan ziren Maria Narbaiza zoriontzera. Agintariek lore sorta oparitu zioten.

Leire Alberdi durangarrak Euskal Enpresari Onenaren saria jaso du Bilbon eginiko ekitaldian

DURANGO | Gizarte eta Euskal Enpresa Fundazioak antolaturiko sari banaketak Leire Alberdi Olabegiaren lana aintzatetsi zuen joan zen martitzenean Bilbon antolaturiko ekitaldian. Durangarrak Euskal Enpresari Onenaren saria jaso zuen. Alberdi Taldeko kudeatzaileak Jesus Mari Alberdi bere aitaren lekukoa hartu zuen familiako enpresa taldearen gidaritzan. Saria jasotzean, ibilbide horretan bizirikoa azaldu zituen eta aitaren ekintzaitza azpimarratu zuen. "Gure amamek sekula ere ez zuten amestu horrelako leku baten egotea. Gure amak, amestu bazuten ere, ez ziren egon. Eta gu hemen gaude. Baina hunkitzen nauena da hau guzti hau urte batzuk barru normala izango dela gure alabentzat", azaldu zuen saria jaso zuenean. Saria amari eskaini zion: "Aitaren zutabea izan zen eta niretzat ere zutabe izaten jarraitzen du".



Erdian, Leire Alberdi, saria jasotzen. EMPRESA XXI

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ESKELAK

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



BURUARI KLIK!



LABIRINTOIA

Labirinto honetan egin bidea intsektuei jarraituz.

LETRA ZOPA

Topatu hamar lanbide hauek letra zopa honetan.

I R T D Q T O O C O V G C N
M A R K I T E K T O A X T F
Z K M U S I K A R I A J J U
Y A S U H I L T Z A I L E A
L B K **M E D I K U A** M S M D
O O Z F R R D D L B U U A F
R K X A I Y P S T E C K R N
E A J F Z D Q K R L Y A G B
Z T X Q A P W L D T L L O Z
A U E R I R S S W Z Y D L C
I A M J N V P I W A U A A H
N R L N A N L J V I W R R Z
A P B N I H X Z F N O I I B
Z J S E Y N I V E A M A A V

ZEIN DA?

Beheko aukeretatik zein dagokio irudiaren hutsune zuriari?



DIFERENTZIAK

Topatu hamar diferentziak.




BERDINAK TOPATU

Denda bi hauetan hiru arrain mota berdin daude. Zeintzuk dira?



BIKIAK

Beheko arrain hezur hauetatik guztietatik bi berdinak dira. Zeintzuk?



MATEMATIKA

Nork egin du erosketarik garestiena?



Prezioak unitateka dira



0,10 €



1,50 €



4,00 €



0,50 €



0,20 €



2,50 €



3,25 €



3,50 €



2,00 €



1,00 €



1,40 €



4,25 €

Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



> anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***

Urriaren 27an

ABADIÑO urteurrena

'Miseriaren adarrak' saioa (EKIDA), 20:00etan. Abadiñoko Gaztetxeak antolatuta.

DURANGO sanfaustoak

Hitzaldi ikusgarria, 20:00etan, udaletxeke plazan.

ELORRIO ipuin musikatua

'Ezberdin bezain eder', 17:30ean, kultur etxean.

ELORRIO lehiaketa

XXIII. Errebonbillo Margo Lehiaketa. Izena ematea 09:00etatik 10:00etara, Iturri kultur etxean.

IURRETA ipuinak

'Kandelaren argitan kontatzeko ipuinak' (Izaskun Mujika), bibliotekan: 17:00etan (3-5 urte) eta 17:45ean (sei urtetik gora).

IURRETA ipuinak

'Peligrosas' (Virginia Imaz), 19:00etan, bibliotekan. Helduentzako saioa.

MALLABIA Urriko Jaiak

Buruhandiak, 16:30ean, eskolatik parkera.
Txondor Herri kirol taldea, 17:00etan, parkean.
Etxebarria aita-seme trikitilariak, 18:00etan.
II. Kickboxing eta boxeo gaua, 18:30ean, frontoian.
Txupinazoa, 18:30ean, udaletxeke balkoitik.
Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan.
Hanburgesa pintxoak, 20:30ean, parkean.
Aiama + Akerbeltz, 21:30ean, parkean.

Urriaren 28an

ABADIÑO urteurrena

Bizikleta martxa, 11:00etan.
Argazki erakusketa, Gaztetxean.
Bazkaria, 14:30ean. Ondoren, argazkia.
Xaukena elektrotzaranga, 18:00etan.
Stilu + Denso Productions + Gozue + NjO, 21:00etan. Gaztetxeak antolatuta.

BERRIZ ipuinak

'Modesto kapitaina' (Joserra Fachado), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia

'Abundance' (Osa&Mujika), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO sanfaustoak

Umeentzako atletismoa, 16:30ean, Ezkurdin.
Durango Txistu Kontzertua (Silboberri), 20:00etan, Landako Gunean.

DURANGO dantza

'Yarin' (Jon Maia eta Andrés Marin), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO sukaldaritzak

Suk Aldatu (8-12 urte), 11:00etan, Merkatu plazan.

MALLABIA Urriko Jaiak

Binakako frontenis maratokia, 09:00etan, frontoian.
Duatloi txikia, 11:00etan.
Mallabiko VI. Arda Ferixie, 12:00etan, probalekuan.
Txiki-txef, 16:00etan, parkeko anfiteatroan.
Burrumba txaranga, 18:00etan.
Gozategi+Merina Gris+ Hofe x 4:40+TOC, 22:30ean, parkean.

MAÑARIA ipuinak

'Errose Bustintza, Mañariko larrosa, herriaren boza' ipuin irakurketa eta txokolatea, 17:00etan, plazan.

ZALDIBAR musika

Añube, 20:00etan, Olazar futbol zelai zaharrean.

ZORNOTZA antzerkia

'Loti ederra' (Glu Glu), 17:30ean eta 19:30ean, Zornotza Aretoan.

Urriaren 29an

ABADIÑO urteurrena

Abadiñoko Artisauen Azoka, 11:00etan. Gaztetxeak antolatuta.

ABADIÑO ibilbidea

'Abadiñoko auzoak' mendi martxa, 08:30ean, Traña Matienako kioskoan. Sekulebedarra kirol klubak antolatuta (688 613 277).

DURANGO sanfaustoak

54. Umeen Euskal Jaia. Kalejira, 12:00etan, Landako Gunetik eta alardea, Ezkurdin.
Herri Maiteren 35. urteurren kontzertua, 18:00etan, San Frantzisko elizan.

ELORRIO erakusketa

XXXII. Mikologia Erakusketa, 11:30ean, frontoian.

IZURTZA berbaldia

'Erdi Aroan jaten' (Hizlaria: J. M. Gonzalez Cembellin) 10:30ean eta 12:30ean, Etxaburu dorrean.

IURRETA Gaba Baltza

Postal tailerra, 17:00etan, plazan.

MALLABIA Urriko Jaiak

Buruz buruko frontenis maratokia, 09:00etan, eskolako frontoian.
II. Autoen Eslaloma, 11:30ean, Goitondo Behean.
'Katapuntxipun' ikuskizuna, 16:30ean, frontoian. Ondoren, txokolatada.
Mus txapelketa, 17:00etan, Kontzejuzarrean.

Urriaren 30ean

MALLABIA Urriko Jaiak

'Ilun eta beltz. Dardarka jarri baietz!' (Amaia Egidazu) liburutegian: 17:00etan (3-5 urte) eta 18:00etan (sei urtetik gora).

Urriaren 31n

ABADIÑO musika

DJ Miguel Angel Oregi 'Kali', 19:00etan, Isioturen lokalean.

ABADIÑO Arimen Gaua

Eskulanak, 17:00etan, Muntzaratzeko aterpean.
Disco festa, 18:00etan.
Txokolatea, 19:30ean.
DJ Kuki, 20:00etan, Traña plazan.

DURANGO Gaba Baltza

Arimen etorrera 19:30ean Tabirako elizatik.
Karrika eta Kriskitinen ikuskizuna, 20:30ean, Andra Mariko elizpean.

ELORRIO Arimen Gaua

Arimen Gaua ospatzeko kalejira, 18:30ean, Txintxirri ikastolatik.
Dantzaldia, musika eta gaztaina erreak, plazan.

IURRETA Gaba Baltza

Mozorroa jantzi eta aurpegia margotzeko deia, 18:00etan plazan.

Ipuin kontaketa, 19:30ean.

Ibilbide beldurgarria.

MALLABIA Gaba Baltza

Ginkana, 17:00etan, Kontzejuzarrean.
Kalabazak hustea eta aurpegiak eta kareta margotzea, 18:00etan, Kontzejuzarrean. Ondoren, photocall-a.
'Iluntasuna piztu...' ekitaldia, 19:00etan, plazan.
Kantu erronda eta txorizo pintxoak. Trikipoteoa Takittogaz.

OTXANDIO Gaba Baltza

Kalabaza tailerra, 17:00etan plazan. Ondoren, Artekale apainduko dugu.
Kalejira zaratsua, 18:30ean, kanposatutik.
Salda eta gaztaina erreak, 19:45ean, plazan.
Tio Teron, 20:30ean, plazan.

ZORNOTZA Gaba Baltza

Tailerrak, Photocalla eta 'Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!', 17:00etatik 21:00etara, Zelaietan.
Disco festa, 17:30ean, Zelaietako karpian.
Zutik + Eztandap, 19:00etan.

Azaroaren 2an

ABADIÑO berbaldia

Kike Amonarriz, 19:00etan, Isioturen lokalean.

MALLABIA berbaldia

'Heriotza duina' (Hizlariak: Anakotz Lasarte, Iñaki Peña) 19:00etan, Kontzejuzarrean.

Azaroak 3an

ABADIÑO bertsoak

'Poesia zaurien ukendu' bertso saio literarioa: Unai Iturriaga eta Miren Amuriza bertsolariak, Ainhoa Urienek gidatuta. 19:00etan, Isiotun.

ELORRIO dantza

'Los Perros' (Led Silhouette), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia

'Cabeza de cartel' (Perigallo), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Abentura erraldoia**
barikua 27: 17:00
domeka 29: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Los asesinos de la luna**
barikua 27: 19:00
zapata 28: 19:00
domeka 29: 19:00
astelehena 30: 18:00
martitena 31: 18:00
eguztana 1: 19:00

• **Alimañas**
barikua 27: 18:30 / 21:00
zapata 28: 17:30 / 19:30 / 21:30
domeka 29: 16:30 / 18:30 / 20:30
astelehena 30: 18:00 / 20:15
martitena 31: 18:00 / 20:15
eguztana 1: 18:00 / 20:15

• **Mamacruz**
barikua 27: 21:00
zapata 28: 21:30
domeka 29: 20:30
astelehena 30: 20:15
martitena 31: 20:15
eguztana 1: 18:00 / 20:15

• **Trolls 3: todos juntos**
barikua 27: 18:30
zapata 28: 17:00 / 19:30
domeka 29: 17:00 / 18:30
astelehena 30: 18:00
martitena 31: 18:00
eguztana 1: 17:00

• **La patrulla canina: la superpelícula**
zapata 28: 17:30
domeka 29: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Las chicas están bien**
zapata 28: 20:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00

• **Ninja Turtles: caos mutante**
domeka 29: 17:00

• **Karpeta urdinak**
eguztana 1: 20:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Sound of freedom**
barikua 27: 20:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:15

• **¡Salta!**
domeka 29: 17:00

• **Matria**
martitena 31: 20:15

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

“70eko hamarkadako road movie bat hartu eta gure estilora ekarri dugu”

Mendilibarrek eta Aramendik Zilarrezko Antzara jaso dute Euskal Zine Bileran, 'Habana glass'-en zuzendaritzagaitik

ZINEMAGINTZA • ARITZ MALDONADO

Musikazaleak izateaz gainera, Jon Aramendi durangarrak eta Aitor Mendilibar zaldibartarrak zinemarako afizioa (baita ofizioa ere) dutela erakutsi dute.

Pozik zaudete sariagaz?

Jon Aramendi: Eginiko lanaren aitortza itzela da. Azken finean, lagun artean egin dugun zerbait da, eze-lango laguntzarik jaso barik, eta horrek meritu handia du; 19 lanen artean sarituriko bat izatea egundokoa da; oraindino gehiago beste lanen maila handia ikusita. Askokoztu nau zuzendaritzarik onenaren saria jasotzeak. Gainera, nire lehenengo film laburra da eta horrek zalantzak kentzeko balio izan dit. Saria jasotzean, epaimahaikideen berbek mutu utzi ninduten, baina lantaldeko partaideei bideo baten bitartez eman nizkien gero eskerrak (barrez).

Aitor Mendilibar: Poz handia sentitzen dut. Oso eskertuta gaude, epaileei eta lantalde osoari. Sari hau denonda da. Lan kontuengaitik ezin izan nintzen Lekeitioko galan egon, baina berriak asko poztu ninduen, eta Jon agertokian ikusteak emozionatu egin ninduen. Nire kasuan, bigarren jaso dut sari hau (lehenengoa Ibon Goikogaz, *Irten barrura* lanagaitik).

Nondik dator ideia?

J. A.: Aitorrek *Irten Barrura*ren prozesuan parte hartzeraz gona bidatu

ninduen, eta horrek *Habana glass* egitera bultzatu ninduen. Pandemi garaiko itxialdian idatzi nuen istorioa. Aitorregaz berba egin, eta ideia gustatu egin zitzaion. Urte biko prozesua izan da eta asko ikasi dut beragaz; lagun artean egiteak ere lagundu du. Hile birik behin geratu gara urruneko lokalizazioetan grabatzeko, eta hori antolatzeak denbora eskatu digu. Ez dugu ez presarik ez presiorik izan, eta oso ondo pasatu dugu elkartu garen bakoitzean; lan egiteaz gainera, barre asko egin dugu.

A. M.: 2020ko azaroan etorri zitzaidan Jon, eta proiektua oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gutxira, gidoia landu eta lagun ez osaturiko lantalde bat prestatu genuen. 2021eko ekainean hasi ginen grabazioak egiten, Bergaran, eta 2022ko azaroan amaitu genituen, Lekeition. Ordurako, Pello Baños hasita zegoen muntatzeagaz, eta horrela ibili gara aurtengo martxora arte, aldizka. Azkenean, ia hiru urteko lana izan da.

Lehenengoz lan egiten duzue elkarre-gaz?

J. A.: Zine kontuetan baietz esan daiteke; beste kontu batzuetan hamai-ka gauza egindakoak gara (barrez). Ideia argi genuen hasieratik: 70eko hamarkadako road movietan oinarrituriko estiloa hartu eta gure estilora ekartzea; horretarako, Euskal Herrian oso ezaguna den benetako gertakari batean kokatu dugu. Era



Jon Aramendi Arieta-Araunabeña

Zuzendaria
DURANGO | 1984

Aitor Mendilibar Otamendi

Zuzendaria
ZALDIBAR | 1984

honetan, errealitate bat islatzen da, eta Mat protagonistaren azalean jarri daitekeela uste dugu, beragaz batera bidea eginez.

A. M.: Jonek nahiko argi zituen hasierako ideia eta filmari eman gura zion tonua, eta horrek asko erraztu zuen gidoia sortzea, pertsonaiak garatzea eta lokalizazioak aukeratzea. Egia esan, batzuetan baliabideek huts egin eta moldatu egin behar izan gara, baina ondo konpondu gara. Gainera, inprobisatzeak askotan leku hobe batera eramane gaituela esango nuke. Lehenengo aldia da elkarre-gaz lan egiten duguna, nerabegarotik elkar ezagutzen dugun arren. Musika munduan antzeko giroetan ibilitakoak gara, baina *Habana glass* da lehenengo proiektua elkarre-gaz. Bideoklipen bat egin dugu elkarre-

gaz, eta aurrerago proiektu gehiago etorriko da, seguru.

Musikak presentzia nabaria du. Musika-gaz hartu-eman izateak erraztu ala zaildu egin ditu erabakiak?

J. A.: Musika bidelagun ezinbestekoa da road movietan. Istorioa gure estilora ekarri dugun moduan, musika-gaz berdin jokatu dugu, hasierako asmoa aldatuta. Talde asko dago abesti izugarriekin!

A. M.: Gure inguruan sekulako musikariak ditugu eta ez gara horretaz konturatzeko edo ez dugu ezagutzeko ahalegina egiten. Gu musikan ibilitakoak garen neurrian, gure ustez garrantzitsua zen aukeraketa zentzuz egitea.

Durangaldeko hainbat lagunek parte hartu du, bakoitza zeregin batean.

J. A.: Lagunei proposamena bota, eta jo ta motibatuta sartu ziren proiektu-

tuan. Sekula ere ez genuen imajinatuko, proiektua euren balitz legez lan egin dutelako. Proiektu ahaztezina da, gure lagun ez harro sentitzeko modukoa.

A. M.: Esperientzia itzela izan da, bizitako momentuengaitik, batez ere. Oso ondo pasatu dugu sormen prozesuan, eta lanean ere fin ibili gara, giro onean une oro.

Proiektuak zein ibilbide du hemendik aurrera?

J. A.: Beste jaialdi batzuetan aurkezteko asmoa dugu, ahal izanez gero. Adibidez, erantzunaren zain gaude Durangoko Azokaren Irudien aurkezteko.

A. M.: Hasierako helburua bete dugu, gustura geratu garelako. Orain, festibalen biran parte hartzea eta esperientzia gozatzea gustatuko litzaike.

Izaro musikariaren barne prozesuak eta dozena bat ikerlan, Astola aldizkariaren zenbaki berrian

IKERKETA • E.H.

Astola aldizkariak beste zenbaki bat gehitu dio bere ibilbideari, hamazazpigarrena. Eta "inoiz baino azterlan gehiagoraz" egin du itzulera, paper artean dozena bat ikerketa eta elkarriketa bat jasota. Txelu Angoitiak azaldu duenez, "diseinu erakargarri baten bueltan" batu dituzte Durangaldeko "arteari, ondareari, kulturari eta historiari" loturiko edukiak. Horien artean dago ANBOTOk kazetari Ariz

Maldonadok Izaro Andres musikari mallabitarrari egindako elkarriketa mardula. Izarok bere barruko prozesuak erakutsi eta *Cero de enero* disko berriari buruzkoak kontatu ditu elkarriketan.

Ikerlanei dagokienez, aipatze-koa da edukiek duten aberastasuna. Honako gaiak aletu dituzte: Otxandioko arrain kontserba izan zena, Elorrioko lina-putzuak, Zaldibarko ospital psikiatrikoaren mendeurrena, eskualdeko saguzarren

inbentarioa, emakume gazteen lana, Mañariko Atxuri I kobazuloa, auzo eskolak, literatura ondarea, Astolako Etxeak izandako kartzela funtzioak, Martí Plana eta Durangoko udaletxeko fatxadako margolanak. Aipaturiko azken ikerlan hau oinarri hartuta, barikuan ekitaldia egingo dute Durangoko udal plazan. Udaletxeko fatxadako margo musikalak biziaraziko dituzte, irudi proiektzioak eta musika lagun. Ekitaldia 20:00etan hasiko da.



Astola aldizkariaren 17. zenbakia aurkeztu zuten eguaztanean.



Erandioko kanporaketako argazki bat.

Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek kantatuko duen kanporaketan erabakiko dira finalerdiak

Iurretarra azaroaren 1ean lehiatuko da, 17:00etan, Lekeitioko Ikusgarri zinemari; Igor Galarza laugarren eta Ander Sarriugarte bosgarren sailkatu ziren Erandioko kanporaketan

BERTSOLARITZA • A. M.

Kanporaketa bi geratzen dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetan arituko diren hamazortzi bertsolariak nortzuk izango diren erabakitzeko. Lehengo domeka honetan izango da, urriak 29, Igorreko Lasarte aretoan; 17:00etan hasiko da saioa. Aissa Intxaustik, Asier Galarzak, Eneko Aldanak, Janire Arrizabalagak, Jone Larrinagak eta Oihana Bartrak kantatuko dute bertan. Kanporaketa fase honetan, Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarra da Durangaldetik kantatzeko geratzen

den bertsolari bakarra; azaroaren 1eko saioan lehiatuko da, Lekeitioko Aitor Arrutiagaz, Beñat Bilbaogaz, Koldo Gezuragagaz, Maite Sarasolagaz eta Peru Irastortzagaz abestuko du; 17:00etan izango da saioa, Ikusgarri zinemari.

Lekeitioko saioa irabazlea Berrizko finalaurrekorako sailkatuko da; bertan kantatuko dute baita ere Gorka Pagonabarragak eta Iruri Altzerrekak. Bestalde, Igorreko saioa irabazlea Lemoako finalaurrekorako sailkatuko da. Gainerako bertsolariek puntuazioaren arabera izango dute hurrengo fasean

kantatzeko aukera. Saio guztiarako sarrerak www.bertsorrekak.eus atarian daude salgai.

Bestalde, Erandioko Merkatu Zaharrean jokaturiko kanporaketan, laugarrenean, Unai Mendiburu izan zen garaile, 472,5 puntugaz. Imanol Uria geratu zen bigarren, 448,5 puntugaz, eta Paule Ixiar Loizaga hirugarren, 442,5 puntugaz. Igor Galarza abadiñarra laugarren geratu zen, 430,5 puntu erdietsita, eta Ander Sarriugarte durangarra bosgarren, 419,5 puntugaz; sailkapena Garazi Navarrok itxi zuen, 411,5 puntugaz.

Azaroaren 3an eta 4an izango da 24 Ordu Digitalean

Lehiaketaren XIX. edizioa da aurtengoa; parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat aurkezteko

ZINEMAGINTZA • A. M.

Film laburren Elorrioko lehiaketa ezagunaren XIX. edizioa da aurtengoa, eta azaroaren 3an eta 4an jokatu da. Urtero legez, parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat sortzeko. Filmean agertu beharreko esaldia, objektua eta gai zehatza azaroaren 3an azalduko dituzte antolatzaileek, 17:00etan. Azaroaren 4an erakutsiko dituzte parte hartzaile guztien lanak, 20:00etan, Arriola Antzokian. Emanaldia amaitu eta gero, sari banaketa egingo dute; sari nagusia 700 eurokoa izango da eta finalistentzat 500na euroko

beste bi egongo dira. Ia hamar-kada biko ibilbideagaz, jaialdiak errotzea lortu du Elorrion, eta multimedia munduan parte hartzeko formula berriak sortzea du oraindino helburu, originaltasuna, ideia trebetasuna eta istorioen osaketa desberdinak bultzatuz. Durangaldeko parte hartzaileak izaten dira gehienak, Elorriokoak asko, baina badira Euskal Herriko beste toki batzuetatik datozen taldeak ere.

Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko, 24ordu@arriola-ka.eus posta elektronikoa erabili daiteke.



Artxiboko irudia.

Gai librean

Akonpainantea

Martitzena da oraindik, eta, iadanik, aste osoan zehar pausoa narras eroango duzula iragar dezakezu. Eguzkia alferkerian dabil gaur, eguna urratzeko lanetan. Kafetegiko argiek erakarrita sartu zara barrura, eta kafea eta croissantak eskatu dizkiozu zerbitzariari.

Egunkariaren konpainian armatuko duzu gaur, ohitura zaharra ia galtzear dagoen garaiotan. Barrako izkinari begira ohartu zara eskaintza ez dela horren erakargarria ordea, eta Deia aukeratu duzu akonpainante gisa. Euskaraz errelaturik, gertakizunik zein irizirik dakarren galdetu diozu, eta itsu-mustuan paratu dizu begien aurrean lehendakari jaunaren berba sorta.

Hitz potoloak dakarzu Urkulluk, EAEko Langile Publikoen grebaren harira. Populista hitzarekin bete zaio



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

"Irudi katastrofista bat zabaldu behar dute" gehitu du, eta zenbaki askorekin bete du bere zutabea

Zuri, zenbakiekin dantzan darabilzkizu begiak, baina goizegi da horrenbeste datu jasotzeko

ahoa agintariari. "Irudi katastrofista bat zabaldu behar dute" gehitu du, eta zenbaki askorekin bete du bere zutabea. Zuri, zenbakiekin dantzan darabilzkizu begiak, baina goizegi da horrenbeste datu jasotzeko. Izan ere,

ez dizu inporta zenbat milioi (milioe, Iñigoren berbakeran) doazen hara edo hona.

Zuri, alboan ebakia eta tortilla pintxo eskatu dituen erizainari bezala, ardura dizu orainak, baina ardura dizu etorkizunak. Ardura dizu denborak, osasunak eta bizitzak. Ardura dizu lasaitasunak eta ardura dizu atsedanak. Ardura dizu urriaren 25ak, azaroaren 30ak eta abenduaren 19ak. Eta horrek guztiak (eta bertan kabitzen ez diren beste hainbat kontuk) ardura dizulako itxi duzu egunkaria, ordaindu duzu gosaria eta atera zara kalera.

Eguzkiak epeltzen dizu bisaia orain, bisai populista, hain zuzen. Eta pentsatu duzu zure baitan, bihar bakarrik gosalduko duzula, inoren titular, zenbaki eta izenondorekin topo egin barik.



Goian: kimu mailako hiru taldeak eta haur kategoriako bat. Behean: haur kategoriako talde bat eta kadete mailako bi.

Biak Bat kirol klubak bosbidertu egin du neska kopurua lau urtean: 25 izatetik 126 izatera pasatu dira

Emakumeen futbol harrobia lantzeko proiektuak talde bigaz ekin izon bideari, 2019an, eta gaur egun zazpi dituzte

FUTBOLA • J.D.

Elorrio eta Zaldua futbol klubek emakumeen harrobia lantzeko Biak Bat egitasmo bateratua hasi zuten 2019an. Futbolearen aritu gura zuten neska gazte batzuei horretarako aukera eskaintzeko sortu zuten. Haur-kategoriako eta kadete mailako talde banagaz hasi zuten bidea. Harrezkero lau urte baino ez dira joan eta egitasmoaren arrakasta nabaria da. Denbora

horretan, 25 jokalarik izatetik 126 izatera pasatu dira. Talde bigaz hasi ziren eta gaur egun zazpi dituzte: kimu mailako hiru, haur-kategoriako bi eta kadete mailako beste bi. Joan zen domekan Zaldibarko Solobarria futbol zelaian aurkeztu zituzten talde guztiak, gizonen taldeekin batera.

Arrakastarako ez dago errezeta konkreturik, Biak Bat elkartearen koordinatzailea den Sergio Marti-

nen esanetan. Proiektuagaz "oso konprometituta" dagoen lantalde bat eratzea "funtsezkoa" izan da. Hortik aurrera, jokalarik eta gurasoekin duten tratuan dago gakoak. "Jokalarik gazteengandik eta euren gurasoengandik gertu egoten ahalegintzen gara. Jendea gustura dago eta ahoz ahokoak ezin hobeto funtzionatu du", esan du Martinek. Elorrioko eta Zaldibarko jokalarik ez ezik, Abadiñoako, Atxondoko,

Zornotzako, Ermuko eta Eibarko jokalarik ere badituzte, proiektua geroago eta gehiago zabaltzen dabilen erakusle.

Sarritan, neska gazteak kirol batera erakartzea baino gaxagoa izaten da epe luzera begira mantentzea, batez ere adin jakin batera heltzen direnean. Baina Biak Baten ez dute horren arazorik oraingoz. "Egitasmoa hasi genuenetik hona, hiru-lau neskek baino ez dute

utzi. Hori albiste ona da guretzat. Etortzen direnak geratu egiten dira, zorionez", azaldu du Martinek. Hori horrela izan dadin, egunero lanean formakuntzaren eta dibertsioaren arteko oreka bilatzen ahalegintzen dira. "Futbolari lez garatzea, balioak ikastea eta ondo pasatzea, hirurak bata besteagaz lotuta daude. Ikasten duten bitartean familia giroan sentitu daitezten ahalegintzen gara", gaineratu du Martinek.

Hainbeste neska dutenez, azpiegiturak txiki geratu zaizkie eta lankidetzak bilatu dituzte emakumeen talderik ez duten klubekin. Gaur egun, Abadiñoako eta Berrizko futbol zelaian ere entrenatzen dira.

"Erregional mailako talde bat sortu gura dugu"

Elorriok talde bi ditu senior mailan, baina Biak Bat kirol elkarteak beste talde bat sortu gura du etorkizunean



Sergio Martín eta Rober Fernández, Zaldibarko futbol zelaian.

Harrobia lantzen duen edozein klubentzat umetatik nagusietara arteko maila guztietan talde bat izatea da egoerarik idilikoena. Horrela, jokalarik komeni den abiaduran hezten joan daitezke, kategoriarik kategorian salto txikiak emanda. Bide horretan, jokalarik azken jomuga Elorrio da, seniorretan emakumeen talde bi ditu eta; nagusia, Euskal Ligan. Lehenengo Erregionaleko taldea bigarrena jaitsi zen iaz, baina berriro lehenengora igoko den esperantza dute. Ligan, orain arte jokaturiko partidurik biak irabazi dituzte. "Kasu hori gertatzen bada, Biak Baten talde bat sortu gura dugu Bigarren Erregionalean jokatzen. Horrela, seniorretako maila guztietan edukiko genituzke taldeak Euskal Ligaraino, eta neska gehiagorentzat egongo litzateke tokia", azaldu dute Biak Bateko koordinatzaile Sergio Martinek eta entrenatzaileen koordinatzaile Rober Fernándezek.

Epe luzeagora begira, beste amets bat dute: "Durangaldeko klub bat sortzea".

Biak Batek bere ereserkia du, Erkiagari eta Quesadari eskerrak

Quesadak musika ipini dio Erkiagak egindako letrari



Iraitz Erkiaga, klubeko presidente Saioa Gomez eta Mikel Quesada.

Biak Batek bere ereserkia izango du denboraldi honetatik aurrera. Kirol elkartearen proposamena onartuta, Abadiñoan bizi den Iraitz Erkiagak eta Mikel Quesada elorriarrak sortu dute abesti berria. Letra Erkiagarena

da eta Sugoi taldeko gitarrista den Quesadak ipini du musika. Joan zen domekan, Zaldueko eta Biak Bateko taldeak aurkezteko ekimenean, klubak omendu egin zituen eta bertaratu zirenen txaloak jaso zituzten.

Elorrioko ziklo-krosa Euskadiko egutegira bueltatuko da asteburuan

Munduko Kopan sartzea ezinezko ikusten dutenez, nazioarteko egutegitik irtetea erabaki dute



2021ean Elorrioren egutegiko ziklo-kroseko irudia.

ZIKLO-KROSA • JOSEBA DERTEANO

Iazko parentesiaren ondoren, Elorrioko ziklo-krosa asteburu honetan bueltatuko da San Joseko landetara. Ez da kategoriatan berean itzuliko. Antolatzaileek UCI mailatik eta nazioarteko egutegitik irtetea eta Euskadi mailako proba antolatzea erabaki dute. Honela esplikatu du aldaketaren arrazoia Joseba Gorostiza antolatzaileetarikoa batek: "Beti esan izan dugu gure helburua Munduko Kopako egutegian sartzea zela. Baina klase politikoaren artean ez dirudi Munduko Kopa interesekoa denik. Ikusten genuen ez genuela helburua lortuko eta Euskadi mailako lasterketa egitea

erabaki dugu". Euskaldun torneo biko bigarren proba izango da.

Zapatuan eskola mailako lasterketak egingo dituzte, 15:30ean hasita. 350 bat ume batuko dira. Kadete mailatik gorako lasterketak domekan dira: 10:15ean kadeteena, eta 11:15ean juniorrena. 12:15ean opena izango da, eta horien denen aurretik masterrena, 09:15ean.

Emakumeetan, Tolosako ziklo-krosean bigarren geratu zen Naia Arregi berriztarra irabazteko faboritoen artean dago, proba hura irabazi zuen Maria Modenesegaz batera. Gizonetan, erreleboa heldu dela dirudi eta gazteak izango dira faborito, batez ere, 20 urteko Diego

Ruiz de Arcaute eta 18 urteko Gorka Corres arabarrak. Tolosan lehenengo eta bigarren geratu ziren, hurrenez hurren. Aitor Hernandez beteranoak —41 urte— oraindino badela nor erakutsi gurako du, Tolosan gazte bien atzetik hirugarren sailkatu eta gero. Juniorretan, Mikel Aranzabal elorriarrak, Paul Mendizabal abadiñarrak eta Laida Hierro durangarrak onenen artean ibiltzeko maila dute.

Iaz ezin izan zuten ziklo-krosa antolatu, ibilbidearen inguruan udala egiten zebilen lan batzuen gaitik. Horren eraginez, ibilbideko tarte bat "apur bat" moldatu dute, baina ez da aldaketa esanguratsua.

Trinketeko finalak jokatuko dituzte barikuan, Tornosolon

Esku pilotan Jon Jarak eta Koldo Bikandik jokatuko dute; paleta mistoko finala Amaia Larralde-Ander Asurmendi eta Mikel Garcia-Laura Saez bikoteen artekoa da

TRINKETA • J.D.

Gaur, 18:30ean, Kepa Arroitauregiaren oroimenezko txapelketako finalak jokatuko dituzte Tornosolo trinketean. Esku pilotan, buruzburu, Jon Jarak Koldo Bikandik izango du aurkari. Biek latz sufrituta lortu zuten finalerako sailkatzea: Jarak 40-36 irabazi zion Iker Eskamez abadiñarrari, eta Bikandik 40-39 Unax Ramirezari. Aurten inguruko pilotari gazteen aldeko apustua egin dute antolatzaileek,

eta pilotariak ezin hobeto erantzuten ari dira.

Paleta mistoan Amaia Larralde-Ander Asurmendi eta Mikel Garcia-Laura Saez bikoteen artekoa da finala. Larralde Ane Ibañez ordezkaturiko du, azken honek ezin izango duelako finala jokatu. Kasu honetan, lehenengo finalerdia izan da gogorrena, Ibañez-Asurmendi bikoteak Iñigo Arrieta-Maider Ardanaz bikoteari irabazi ziona: 30-26.



Eskuman Mikel Garcia mallabitarra eta Laura Saez gasteiztarra, finalerdietako partiduan.

Jokaldia

Izan z(ir)elako, ari gara

Gara. Izan zirelako, gara. Sarri esan ohi digute atzera begiratzea ez dela komeni, etorkizunak bakarrik duela garrantzia iragana ezin delako aldatu. Baina ez al da garrantzitsua noizean behin atzera begirada bat ematea nondik gatozen ikusteko? Zein ibilbide eta aztarnetatik gatozen konturatzeko?

Bada, badira hiru urte pasatxo euskal pilotari hainbeste eman zion Kepa Arroitauregi joan zitzaigula, eta ni azken aste hauetan atzera begira nabil. Atzera begiratzen dut, eta euskal pilotaren munduaren egoera desberdin bat ikusten dut. Jende askoren lanaren ondorioz, euskal pilotaren esparrua handitu egin zen ezker hormaz aparte. Izan ere, trinketeaz, bote luzeaz eta *one wall*-a bezalako modalitatez gozatzeko aukera



Aitor Arabiourrutia Obregon
Trinketlari ohia

Positiboa iruditzen zait zesta-puntak izandako gorakada, edo trinketa Hego Euskal Herrian hartzen ari den lekua

Eta izan z(ir)elako jokatuko da gaur Kepa Arroitauregi Memorialaren finala Tornosolo trinketean

dugu egun, "ezker-hormazentrismoa" ahazteko momentu batez bada ere.

Kirol ibilbideak gero eta arinago hasi eta telebistak zein berehalakotasunak agintzen duten garaiotan, mometu

aproposa iruditzen zait euskal zaleen panoramika zabaltzea eta medio nagusi eta hegemonikoetatik seinalatzen dugutenaz haratago ikustea. Horregaitik, positiboa iruditzen zait azken denboran zesta-puntak izandako gorakada, trinketa Hego Euskal Herrian hartzen ari den lekua eta bote-luzea bezalako jokoak gero eta ezagunagoak izatea zaleen artean.


Eta izan z(ir)elako jokatuko da gaur IV. Kepa Arroitauregi Memorialaren finala Abadiñoko Tornosolo trinketean, eta izan z(ir)elako da ere BIZKAIA taldea Euskal Herriko Bote Luzeko egungo txapelduna, joan den asteburuan finala irabazi ostean (zazpigarren urtez jarraian izan da BIZKAIA txapeldun). Segi dezagun, beraz, euskal pilotaren alde lanean, nondik gatozen sekula ahaztu gabe.



San Faustoak

Durango





Botikak

BARIKUA, 27 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 28 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRANABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 29 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 30 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 31 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 1 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 2 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Ane (952. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



Zorionak, **Aroa eta Aitor**. Urriaren 20an Aroak 8 urte egin zituen eta Aitorrek ere urteak egiten ditu urriaren 29an. Laster, familia guztiarekin ospatuko dugu, bazkari goxo batekin. Musuak bioi.



Urriaren 28an 9 urte egingo dituzu. Muxu potolo bat, pitxu.



Urriaren 23an **Juanita Zalbidek** urtiak egin dauz. Zorionak, amama! Besarkada handi bat!



Zorionak, potxola! Oso ondo pasa eguna. Muxu potolo eta handi bat familia guztiaren partez.



Abadiñoko futbolari onenek, **Andonik** eta **Xabierrek**, 11 urte egin zituzten urriaren 24an. Zorionak, txapeldunak!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 13° / 20° ☁

ASTELEHENA ↓ 11° / 18° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 17° ☁

DOMEKA ↓ 15° / 20° ☁

MARTITZENA ↓ 9° / 18° ☀

EGUENA ↓ 13° / 18° ☁

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

ESCAPE ROOM

ERAMANGARRIA

ASKONDOKO KARPA

ERRESERBATU!

SARRERA DOAN

URRIAK 27 (17:00 - 21:00)

URRIAK 28 (16:00 - 21:00)

12-99 URTE, 12 URTETIK BEHERAKOAK, HELDUEN LAGUNTZAZ

bbkθ

KULTUR-ETXEA@IURRETA.EUS

Iurreta



"Oso polita izaten ari den erronka da niretzat 'Ztanda' lehiaketa"

'Ztanda' talent show berriko lehiakideetariko bat da Jon Castañeda 'Jonkass' zornotzarra. Euskal Herriko abeslaririk onena topatzea helburu duen ETB1eko saioa urriaren 29an hasiko da



Jon Castañeda Sanz

Kazetaria eta musikaria
ZORNOTZA | 2001

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Jon Castañeda 'Jonkass' lagun batek proposatuta animatu zen 'Ztanda' talent show-an parte hartzera. Zornotzarra Bilboko Eliseo Zelaia antzokiko oholtzara igoko da, beste hamabi lehiakidegaz batera, esperientzia bizi eta dena emateko prest. Kazetaritza ikasi du eta Akerbeltz erromeria taldeko abeslaria da.

Zein helburugaz zoaz 'Ztanda' programara?

Esperientzia bizitzera, ikastera, eta ondo pasatzera ere bai, jakina. Telebistaren mundua ikusteko gogoia nuen eta asko ikasten nabil:

zelakoa den, zelan jokatu kameran aurrean... Ohituta nago oholtzara igotzera, baina ez da berdina jendeari begiratzea edo telebista kamerari. Telebistan oso azkar doa dena, eta lan mordoa egiten dugu, asko zainduriko lana. Oso polita izaten ari den erronka da niretzat. Ondo zainduriko apustua da Ztanda, apustu sendoa. Ahal dudan urrunen heltzea dut helburu, baina lehiakideen maila handi-handia da. Lehiakideak oso desberdinak gara, bakoitza bere indarguneekin. **Irratian baduzu esperientzia, baina kamerek errespetua ematen dizute?** Ez, beti gustatu zait. Telebistan lan

egindakoa naiz, kameran atzealdean, baina aurrean ipintzea probatu gura nuen. Oso gustura nabil.

Ahal dudan urrunen heltzea dut helburu, baina lehiakideen maila handi-handia da

Bilboko Eliseo Zelaia antzokian guztiz harrapatzen zaituen halako atmosfera sortzen da. Barru-barruraino sartzen zaitu jokoan, lehiaketa

tan. Baina emozioak kontrolatzen eta egoera kudeatzen ere ikasten duzu. Izan ere, askotan ahaztu egiten dugu telebista saio batean gaudela. Dena show handi bat bihurtzen da.

Reggaettoa, musika elektronikoa edo trap-a modan dauden garaiotan, erromeria giroak erakartzen du jendea?

Bai! Akerbeltz taldeak 15 urte egin ditu eta hori guzti hori ere sartu dugu gure erreperorioan. Neurritz, erromeriaren esentzia galdu barik. Arrakasta itzela izan duten kanta euskaldunak daude, doinu elektronikodunak edo reggaetoi kutsua dutenak. Eta ezin dugu beste aldera begiratu, ez genuke jendeagaz konektatuko. Hasieran jendearen harridura igarri genuen, baina gero abesti horiek eskatu dizkigute. Orain hiru urte pentsaezinak ziren abestiak jotzen ditugu orain

Erromeriak oso momentu onean daudela esango nuke; ezinbestekoak dira oraindino ere

erromerietan, eta pozgarria da, aniztasuna ona da beti. Erromeriak oso momentu onean daudela esango nuke; ezinbestekoak dira oraindino ere. Jendeak asko zaintzen gaitu.

Trikitia, txistua, gitarra, dultzaina, baxua, panderoa eta danbolina jotzen dituzu. Zein leku du musikak zure bizitzan?

Folkloriko bat naiz! Egunerokoan leku itzela hartzen du musikak nire bizitzan, eta orain oraindino gehiago. Musikatik bizitzera gura nuke, baina gatxa da; erromerietatik ezin da bizi, oraingoz.

DJ lez ere aritzen zara. Abesti bat?

Corazón de tango. Doctor Deseo dut talderik gogokoena.

Kazetaria, abeslaria, musika jartzaillea... saltsa guztien perrexila zara?

Apur bat bai. Ez dakit ezetz esaten, eta ez zait gustatzen gainera. Ni konbentzitzea oso erraza da, eta egin gura ditudan gauza guztiak egiteko, ordu gehiago behar dut. Nire egunerokoa zorarena da!

Lau-hortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEK



Aurkia eta infrentzua!

Etsigarria da EAEko Hezkuntza Legea berri duela 40 urte sortutako hizkuntza-ereduak mantetzeko asmoa. Argudio moduan jarri da gurasoek eredu desberdinen artean aukeratzeko askatasuna bermatzea. Etsigarria da 40 urte igaro ondoren, horrelako argudioak irakurri behar izatea. Izan ere, matrikulazio datuen bilakaerak argi erakusten du D eredu dela hautu nagusia, beraz, gurasoen askatasuna ez dago ezbaian.

Halaber, berrogei urteren ondoren, frogatuta geratu da A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen, eta ikasle euskaldun eleaniztunak sortzerako orduan, arrakasta gehien izan duen hezkuntza-eredutik abiatu behar dela hurrengo urteetan gidatuko duen arautegia: euskara ardatza izango duen eredu. Ezin dugu aukera hau galdu.

Era berean, etsigarria da 2023ko urte judiziala abiatzeko ekitaldian justizian euskara gutxi eta nekez erabiltzen dela entzutea arduradun nagusiaren ahotik; oraindik bide luzea dagoela EAEko justizia administrazioan euskara xertatzeko. Zenbat urte beharko dira gutxi eta nekez hitzen antonimoak erabiltzeko?

Baina dena ez da etsigarria. Pozteko arrazoiak ere egon dira azken egunetan. Ezin aipatu barik utzi euskaltegietan matrikulatu diren ikasle andana. Buruan daukat 0 mailatik abiatu den Elorrioko taldea: adin eta jatorri desberdina duten 8 lagunek hasi dute euskara ikasteko bidaia zoragarria. Ikaragarria da hauek zein beste milaka helduk egiten dioten ekarpena euskararen biziberritzeari. Bejondeizuela!

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak